



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urriaren 11

116. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulua aldatzen dituena. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeak onetsitako irizpena (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desagerraraz dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu eta aitortzen baitu desagerturik dauden pertsona sahararrak aurkitu, hobitik atera eta identifikatzeko lana. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko baitu Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko Foru Legearen eta Etxebizitza hutsen gaineko zerga arautzen duen Foru Legearen aurkako balizko errekurtsoa. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgia eta neke kronikoari buruzko jarduketa-protokolo zehatz bat presta dezan. Osasun Batzordeak onetsia (10. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari adieraz diezaioten ez dagoela ados Norberaren kontsumo elektrikoa arautzeko lege proiektuarekin. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (10. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Nafarroako egileek sorturiko musika ezagutzera emateko planari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Feder funtsei buruzkoa, Feder 2007-2013 programa eragilearen esparruan. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea (12. or.).
- Galdera, gizarteratze errentaren gainean Gobernuak emandako datuei buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (12. or.).
- Galdera, osasun arloko eskubideei eta betebeharreri buruzko 17/2010 Foru Legearen aplikazioari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (13. or.).
- Galdera, 8/2013 eta 17/2010 foru legeen aplikazioari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako pediatriako lanpostu eta langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, edozein obra pribatu edo publikotan giza hezurak agertzen diren kasuetan jarraitzen den protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietan ingresatutako Santiago Iricibar pazientea Burgosko Ospitalera eramateko egiazko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, euriteek Lekunberriko zabortegei zaharrean izandako eragina arintzeko aurreikusitako ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, euskaltegientzako diru-laguntzen deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen abenduaren 28ko 96/2003 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskara ikasteko salbuespenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2013ko urriaren 4an onetsitako erabakiak (22. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duena.**

**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2013ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**OSOKO ZUZENKETAK**

**1. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI  
ETA NAFARROAKO PARLAMENTUKO POPULAR  
PARLAMENTU-TALDEEK  
ETA MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA  
FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, proposatzen duena Gobernuari itzul dakion Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua.

Zioak: Proiektua egin da testuak eraginen dien sektore ekonomikoen ezagutza gabe, eta sektore horiei bizkarra emanaz.

Honelako aldaketa batek behar du ukitutako alderdien adostasuna, eta lortutakoa baino adostasun handiagorik gabe ezin da gauzatu.

Aldaketa hau ez dago oinarrituta konpondu nahi omen duen arazoan azterketa serio batean; horrenbestez, Legebiltzar honetan onartzeak

nekez konponduko ditu adinagatik ahultasun-egokian egoten ahal diren pertsonen edari alkoholdunak eskura izatearen ondoriozko arazoak, eta errepideetako istripu-tasa ere ez du jaitsaraziko.

**2. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, Adin txikikoei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztua, proposatzen den

aldaketa ez baita egokia legearen testuak ezartzen dituen helburuak lortzeko.

Bilatzen dena ezin da zuzenketa partzialen bidez konpondu. Konponbide egoki bat lortzeko, lehenbizi lasaitasunez eztabaidatu behar da ukitutako talde eta sektoreekin, eta horren ondotik egin izapideak Legebiltzar honetan.

**ARTIKULUEI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**1. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko Bat ataleko 2. idatz-zatiko b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez gatzoz bat proposatutako debekuaren beharrezkin.

## **2. ZUZENKETA**

### **IZQUIERDA-EZKERRA**

#### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko Bi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez gatoz bat proposatutako debekuaren beharrarekin.

---

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulu-  
lua aldatzen dituen.**

*LANDA GARAPENEN, INGURUMENEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONESTITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeak onestitako irizpena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulu-  
lua aldatzen dituen Foru Lege proposamenari buruzkoa. Proposamen hori 2013ko ekainaren 11ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz, ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**IRIZPENA**

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeak 2013ko urriaren 1ean egindako bileran onetsia

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulu-  
lua aldatzen dituen**

**ZIOEN AZALPENA**

Honen bidez, aldatu egiten da etxebizitza hutsen gaineko zerga, lehen etxebizitza desokupatuen gaineko zerga deitua; izan ere, Nafarroan Etxebizitzarako Eskubidea Ziurtatzeko Neurri Urgenteei buruzko Foru Legeari zehaztu egin behar zaio dagokion marko fiskala, eta, hala, eza-

rri beharra dago Nafarroako udalek nahitaezkoa izanen dutela zerga hau ordainaraztea.

Zerga hori ezartzeko, aldatu beharra dago Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulu-  
lua, eta lege horrek, bere 58. artikulua arabera, gehiago osoa exijitzen du onesteko, eta hori da foru lege honen bidez egiten dena.

**1. artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 132. artikulua aldatzen da. Honako testua izanen du:

“132. artikulua.

1. Foru lege honen eta hura garatzen duten xedapenen arabera, udal guztiek honako zerga hauek ordainarazteko:

- a) Lurralde-kontribuzioa.
- b) Jarduera ekonomikoen gaineko zerga edo lizentzia fiskala.
- c) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga edo zirkulaziokoa.
- d) Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga.
- e) Hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga edo plusbaliokoa.
- f) Etxebizitza hutsen gaineko zerga.

2. Orobat, foru lege honen, bera garatzen duten xedapenen eta zerga ordenantzen arabera, udalek luxuzko gastuen gaineko zerga ezarri eta ordainarazi ahalko dute”

**2. artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko II. tituluko VIII. kapitulu-  
lua aldatzen da. Honelaxe geldituko da:

## "VIII. KAPITULUA

## Etxebizitza hutsen gaineko zerga

## 184. artikulua. Zergapeko egintza.

Etxebizitza hutsen gaineko zergak zergapetuko du Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean araututako Etxebizitza Hutsen Erregistroan agertzen diren udalerriko etxebizitzaren titulartasuna.

## 185. artikulua. Subjektu pasiboak.

Zergaren subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak, jaraunspen jasogabeak, ondasun-erkidegoak, eta gainerako entitateak, nortasun juridikorik izan ez arren, batasun ekonomikoa edo aparteko ondarea osatzen dutenak, baldin eta:

a) Etxebizitza hutsen gaineko jabetza-eskubidearen titular badira, etxebizitza horien gainean bestelako gozamen-eskubide errealik ez denean.

b) Etxebizitza hutsen gaineko gozamen-eskubide erreal baten titular baldin badira, eskubide hori jabeari ez dagokionean.

## 186. artikulua. Salbuespenak.

1. Honakoak daude zerga honetatik salbuesiak:

a) Etxebizitza zein herritan dagoen, beren zereginak handik kanpo bete behar dituzten funtzionario publikoen titulartasunpeko etxebizitzak; hori guztia, aplikatzen zaien legeriarekin bat.

b) Honako hauen titulartasunpeko etxebizitzak: ohiko bizilekua zein herritan daukaten, handik kanpo aldi baterako joan behar izan duten langileak, arrazoi tekniko, antolamenduko zein ekoizpenekoak direla-eta, edo bestela enpresa-jarduketari buruzko kontratazioengatik alde egin behar izan dutenak, edo toki-mugikortasuna aplikatzen zaienak.

c) Administrazio Publikoaren esku jarri diren etxebizitzak (Nasuvinsa edo kasuan kasuko entitatearen esku), gizarte-alokairurako erabiltzeko.

2. Nolanahi ere, salbuespenak etxebizitza bakarra hartuko du.

## 187. artikulua. Zerga-oinarria.

Zerga-oinarria lurraldeko kontribuzioaren ordainarazpenerako indarrean dagoena izanen da.

## 188. artikulua. Kuota.

1. Zerga honen kuota zerga-oinarriari karga-tasa aplikatuz kalkulatu da.

2. Karga-tasak tarte hauen barrenean egon beharko du: % 0,10 eta % 0,50 artean, Etxebizitza Hutsen Erregistroan agertzen den lehenbiziko urtean; % 0,50 eta % 1 artean, Erregistroan ager-

tzen den bigarren urtean; eta % 1 eta % 1,5 artean, Erregistroan agertzen den hirugarren urtean eta hurrengoetan. Karga-tasa bat bera izanen da udalerriko osoan.

## 189. artikulua. Sortzapena.

1. Zerga lehen aldiz sortuko da etxebizitza hutsik dagoela deklaratzeko duen kasuko ebazpena ematen denean.

2. Gero, zerga urte bakoitzeko lehen egunean sortuko da, etxebizitza Etxebizitza Hutsen Erregistroan alta emanda dagoen bitartean.

3. Kuotak seihilekoak izanen dira, seihileko naturalekoak, eta horien barruan, zatiezinak eta gutxitzen ezinak izanen dira.

4. Subjektu pasiboek zera eskatu ahal izanen dute, dagokion espedientea izapidetuz: etxebizitza bete denetik aurrerako aldiari dagokion heineko kuota-zatia itzultzea.

## 190. artikulua. Etxebizitza hutsen zentsua.

1. Etxebizitza hutsen zentsua mantendu beharko dute udalek, zergaren ordainarazpenerako.

2. Aurreko idatz-zatian xedatuaren ondorioetarako, departamentu eskudunak ofizios jakinaraziko dizkio udal bakoitzari Etxebizitza Hutsen Erregistroan gertatzen diren altak eta bajak, kasuko udalerriri dagozkionak.

3. Erregistroan alta emanda, udalak titularrari jakinaraziko dio alta hori, zerga-oinarria eta karga-tasa indarduna adierazita.

## 191. artikulua. Zergaren kudeaketa.

Zerga lurralde-kontribuziorako erabiltzen diren arau berekin kudeatuko da, eta kasuko likidazioak eta kobrantza-dokumentuen igorpenak batera egingen dira."

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arau-indargabetzea.

Foru lege honen aurka doazen lege- nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarririk gabe gelditzen dira.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak foru lege honek ezarritakoak aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak emanen ditu.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desagerraraz dezan.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desagerraraz dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin argitzea.

**3.** Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko eledun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desagerraraz dezan.

Nafarroan, ondarearen zaintza, historikoki, Vianako Printzea Erakundearen eginkizuna izan da eta bere-bereak dituen lanetako bat izan du hori. Hala ere, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa sortu zuen 2000n, eraikin monumentalaren zaintza eta zaharberritzea sustatu eta kudeatzeko. Fundazio horrek berezko nortasun juridikoa du, Nafarroako Zuzenbide Zibilarren Konpilazioko 43.6 legean ezarritakoaren arabera.

Fundazioaren helburuak eta fundazioaren emaitza neurgarriak ez direnez bat etorri, Nafarroako Parlamentuak erabaki zuen –27 boto alde;

21 abstentzio– konfiantza-tarte bat ematea Gobernuari, eta honako mozio hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrazter ditzan Fundazioaren helburuak eta xedeak, egungo beharrezanetara egokitze aldera, nabarmen aldatu baitira erakunde hori abian jarri zenetik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bidezkoak diren aldaketak proposa ditzan, Nafarroako Kultura Kontseiluaren Ondare Batzordearen aholkularitzarekin, aurreikusitako helburuak, bereziki b) eta d) ataletakoak, lortze aldera.

3. Fundazioa gizartean txertatu eta gehiago irekitze aldera, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kulturaren arloan prestigio handikoak diren pertsonak sar ditzan patronatuan, gaur egun Gobernuak kidez bakarrik osatua baitago.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurtengo irailaren 30a baino lehen aurkez dezan Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Batzordean araudi berria, bidezkotzat jotzen dituen aldaketekin, 2014ko aurrekontuen aurreproiektua egiterako eraginkorra izan dadin”.

Urriko lehen astean gaude, eta, guk dakigula, Gobernuak ez dio igorri Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako Batzordeari aurreikusitako aldaketak dituen araudi berria. Hori dela-eta, hau proposatzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa desagerraraz dezan, sortu zeneko helburuak lortzeko duen eraginkortasun urriagatik eta Nafarroako Gobernuak Fundazioaren emaitzak hobetzeko behar diren aldaketak proposatzeko interesik ez edukitzeagatik.

Iruñean, 2013ko urriaren 3an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli



**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu eta aitortzen baitu desagerturik dauden pertsona sahararrak aurkitu, hobitik atera eta identifikatzeko lana.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

Nafarroako Parlamentuak honakoa erabaki du:

1. "Desagerturik dauden pertsona sahararrak aurkitu, hobitik atera eta identifikatzeko lana babestea eta aitortzea, babesa emanaz desagertuen behartuak argitzen lan egiten duten Saharako elkarteei.

2. Espainiako Gobernua ministerio eskudunen bitartez gertakari horiek argitzeko izapideak hastearen alde agertzea.

3. Espainiako Gobernuari eskatzea nazioarteko erakundeen aurrean defenda dezan misio ofizial bat sortzea, Minurso barne dela, Saharan desagertutako 400 pertsona baino gehiago horiek non dauden argitzeko.

4. Espainiako Gobernuari eskatzea nazioarteko erkidegoaren aurrean exiji dezan Minursok eskumenak edukitzea giza eskubideen arloan"

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu baitu Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko Foru Legearen eta Etxebizitza hutsen gaineko zerga arautzen duen Foru Legearen aurkako balizko errekurtsioa.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko Foru Legearen eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren

10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulua aldatzen dituen Foru Lege proposamenaren aurkako Estatuaren balizko errekurtsioa."

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgia eta neke kronikoari buruzko jarduketa-protokolo zehatz bat presta dezan.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2013ko urriaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgia eta neke kronikoari buruzko jarduketa protokolo zehatz bat presta dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko neurriak har ditzan:

- Osasun arloko jarduketa-protokolo bat sortzea.

- Gaixotasun horiei buruzko ikerkuntza, sentsibilizazioa eta prestakuntza berariazkoa areagotzea osasun arloko langileen eta elkarteko langileen artean.

- Gaixotasun horiek dituzten langileentzako zerbitzu, aholku eta laguntza lerroak prestatzea.

- Fibromialgia, neke kronikoaren sindromea eta sentsibilitate kimiko anizkoitza hartzea ezgaitasuna eragiten duten gaixotasun gisa.

- Gaixo hauen lan egiteko eskubidea ahalbidetzea lanpostuak ebaluatuz eta gaixo bakoitzaren beharrezanetara egokituz”.

Iruñean, 2013ko urriaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari adieraz diezaion ez dagoela ados Norberaren kontsumo elektrikoa arautzeko lege proiektuarekin.**

### *EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2013ko urriaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari adieraz diezaion ez dagoela ados Norberaren kontsumo elektrikoa arautzeko lege proiektuarekin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari adie-

raz diezaion ez dagoela ados Autokontsumo elektrikoa arautzeko lege proiektuaren gaur egungo taxuarekin, eta balantze garbiko autokontsumoaren eta sarerako isurketarik gabeko instalazioak sustatzeko lege proiektu bat negoziatzea, erabiltzaileentzat bideragarria izan dena, ez diskriminatzailea, errespetuzkoa herritarren askatasun indibidualekin eta autonomia erki-degoek, baita Nafarroako Foru Komunitateak ere, etorkizunean arlo horretan izan ditzaketenen eskumenekin”.

Iruñean, 2013ko urriaren 8an.

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako egileek sorturiko musika ezagutzera emateko planari buruzkoa.**

### *ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako egileek sorturiko musika ezagutzera emateko planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Legebiltzarrak, 2013ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas de Navarra parla-

mentu-taldearen mozio bat onetsi zuen –29 boto alde, eta 15 abstentzio–. Mozioaren bidez, Gobernua premiatu zen Nafarroako autoreek sortutako musika ezagutarazteko plan bat idatz eta abian jar dezan.

Mozioaren 2. puntuak honela zion, hitzez hitz: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu plana irailaren 30a baino lehen aurkez dezan Kulturako, Turismoko eta Erkunde Harremanetako Batzordean, han jasotako jarduketetako batzuk aurreikuste aldera 2014ko aurrekontuan eta erkidegoko musika-entitateekin sinatu beharreko deialdi eta hitzarmen berrietan.

Urriaren 3a da gaur, eta ez daukagu plana Parlamentura igorri izanaren berri. Hortaz, hauxe jakin nahi dugu:

- Aurkeztu al zaio plana Parlamentuari?
- Zergatik ez da bete aurreikusitako egutegia?
- Noiz aurkeztuko da plana, gutxi gorabehera?

Iruñean, 2013ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## Galdera, Feder funtsei buruzkoa, Feder 2007-2013 programa eragilearen esparruan.

### EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak erantzungo duela Manu Ayedi Olaizola jaunak aurkezturiko galdera, Feder funtsei buruzkoa, Feder 2007-2013 programa era-

gilearen esparruan. Galdera 2013ko irailaren 30eko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## Galdera, gizarteratze errentaren gainean Gobernuak emandako datuei buruzkoa.

### PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, gizarteratze errentaren gainean Gobernuak emandako datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere. Gizarte Politiketako Departamentuak egindako dokumentu bat eraman zuen kontseilariak agerraldira, gizarteratze errentari buruzko datuak eguneratuta zituena. Dokumentu horretako 6. grafikoan ondoko datuak ageri dira, oinarritzko errentari nahiz gizarteratze errentari dagokienez hilean batez beste ordaindutako zenbatekoaren bilakaera dela-eta:

Urtea	Oinarritzko errentari nahiz gizarteratze errentari dagokienez hilean batez beste ordaindutako zenbatekoa
2008	494,80
2009	515,44
2010	534,26
2011	525,12
2012	494,18
2013	510,92

### GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Irailaren 23an, astelehenez, Gizarte Politiketako kontseilariak Parlamentuan agerraldia egin zuen, berak hala eskatuta, gizarteratze errentaren lan-taldean, zeinean aztertzen ari baita zein den

PEI-00265 informazio-eskariari erantzunez Nafarroako Gobernuak berak emandako datuen azterketatik abiatuta, oinarritzko errentari nahiz gizarteratze errentari dagokienez batez beste ordaindutako hileko zenbatekoaren kalkulua ondoko datuak eskaintzen dizkigu aldi horretan:

			Oinarrizko errentari nahiz gizarteratze errentari dagokienez batez beste ordaindutako zenbatekoa	
Urtea	Hartzaile kopurua	Ordaindutakoa (€)	Urtean (€)	Hilean (€)
2008	3.162	8.885.361.14	2.810	234
2009	5.662	20.241.369.41	3.575	298
2010	7.449	29.503.081.39	3.961	330
2011	8.186	34.900.616.56	4.263	355
2012	7.934	30.274.234.21	3.816	318
2013	7.094	35.202.082.72	4.962	414

Alde nabarmena dagoenez Parlamentuko lantaldere eramandako azken dokumentuan adierazitako batez besteko zenbatekoaren eta Gobernuak PEI-00265 eskariari emandako erantzunean emandako datuetatik heldu den zenbatekoaren artean, hau jakin nahi dut:

• Nola interpretatu behar dira Gobernuaren datuak? Gobernuaren ustez, zergatik dago halako aldea?

Iruñean, 2013ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

## **Galdera, osasun arloko eskubideei eta betebeharrei buruzko 17/2010 Foru Legearen aplikazioari buruzkoa.**

### *ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, osasun arloko eskubideei eta betebeharrei buruzko 17/2010 Foru Legearen aplikazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Laz-

kanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Osasun arloko eskubideei eta betebeharrei buruzko 17/2010 Foru Legeko azken xedapenetan lehenengoak ezartzen du Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaiola foru lege hori garatzeko behar diren erregelamenduzko arauak eman ditzan. Halaber, lege horretan jasotzen da osasunlaguntza publikoak, estaldura unibertsalekoak, Nafarroako Foru Komunitateko udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen dituela, zein ere den haien lege egoera.

Zure departamentuaren ustez, ez da inolako erregelamendurik behar lege hori betetzeko? Baiezkoan, erregelamendua egin ordez zergatik proposatu zenuten diru-laguntzen araubidea? Ezezkoan, zergatik ez da aplikatzen legea?

Iruñean, 2013ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

**Galdera, 8/2013 eta 17/2010 foru legeen aplikazioari buruzkoa.****ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak 8/2013 eta 17/2010 foru legeen aplikazioari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio

Nafarroako Gobernuak kasuko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Zuen ustez, otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legeak jorratzen duen arloan Nafarroak dituen eskumenak betetzen al ditu lege horrek?

2.- Baiezkoan, zergatik prestatu dute Gizarte Politiketako Departamentuaren Nazioarteko Lankidetzaren funtsen bidezko diru-laguntza araubide bat –baliabiderik gabeko pertsonentzat Nafarroan osasun-laguntza publikoa unibertsalitatearen araubidearen ehuneko ehun finantzatzen zuena–? Zergatik ez dituzte zuzenean aplikatu jada onetsitako legeak, esaterako eskubideei eta betebeharrei buruzko 17/2010 Foru Legea, non esplizituki esaten baita osasun-laguntza publikoak, estaldura unibertsalekoak, Nafarroako Foru Komunitateko udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen dituela, zein ere den haien lege egoera?

3.- Zuen ustez, 17/2010 Foru Legeak Nafarroaren eskumenak betetzen al ditu?

Iruñean, 2013ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

## Galdera, Nafarroako pediatriako lanpostu eta langileei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak Nafarroako pediatriako lanpostu eta langileei buruz egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan haurren laguntza medikoaz arduratzen diren profesionalekin lotutako gai batzuei buruz (PES-00108). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

1. Pediatriako zenbat lanpostu daude Nafarroan? 201 dira guztira.

2. Zenbat profesional egiten dute lan pediatria gisa? 201 dira guztira.

3. Profesionalen bat ba al dago pediatra izan gabe halakoaren lanpostuan lan egiten duena? Datu xeheak ezagutu nahi ditugu; esate baterako, zein herritan gertatzen den hori eta zergatik.

Azaldu beharra dago inguruabar hori ez dela gertatzen laguntza espezializatuan, non profesional guztiek pediatriako espezialitatea baitaukate. Aitzitik, bai gertatzen da oinarrizko osasun laguntzan, non oinarrizko osasun laguntzako lantaldeetarako sendagileak kontratatzen baitira, pediatriako espezialitatea eduki gabe, oinarrizko osasun laguntzako lantaldeetako pediatria lanpostuetan (35 profesionalen kasua da). Haurren kupoak dauzkate artatzeko, zeren eta lan merkatuan ez baitago espezialitate horretako sendagilerik langabezian dagoenik. Indarrean den araudiak aukera ematen du oinarrizko osasun laguntzako lantalde-

etako sendagileak kontratatzeko, haurren osasun laguntza bermatze aldera. Honakoak dira horrelako kontratazioetara jo behar izan dugun tokiak:

Oinarrizko Osasun Laguntzako Pediatriak	Guztira
ALTSASUKO OOL ZUZENDARITZA	2
ANTSOAINGO OOL ZUZENDARITZA	2
BERRIOZARKO OOL ZUZENDARITZA	2
BUÑUELGO OOL ZUZENDARITZA	1
BURLATAKO OOL ZUZENDARITZA	2
BUZTINTXURIKO OOL ZUZENDARITZA	2
ZARRAKAZTELUKO OOL ZUZENDARITZA	1
ZIZUR-ETXABAKOIZKO OOL ZUZENDARITZA	3
DONEZTEBEKO OOL ZUZENDARITZA	1
ELIZONDOKO OOL ZUZENDARITZA	1
LIZARRAKO OOL ZUZENDARITZA	1
ETXARRI-ARANAZKO OOL ZUZENDARITZA	1
UHARTE IRUÑEKO OOL ZUZENDARITZA	1
ZABALGUNEKO OOL ZUZENDARITZA	1
ITURRAMAKO OOL ZUZENDARITZA	1
LODOSAKO OOL ZUZENDARITZA	2
MENDILLORRIKO OOL ZUZENDARITZA	1
ERRIBERRIKO OOL ZUZENDARITZA	1
ORKOIENGO OOL ZUZENDARITZA	1
AZKOIENGO OOL ZUZENDARITZA	1
ARROTXAPEKO OOL ZUZENDARITZA	1
SAN ADRIANGO OOL ZUZENDARITZA	1
ULTZAMAKO OOL ZUZENDARITZA	1
ATARRABIako OOL ZUZENDARITZA	2
LARRIALDIETAKO ZERBITZU BEREZIA	2
Guztira	35

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko irailaren 24an

Osasun kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, edozein obra pribatu edo publikotan giza hezurak agertzen diren kasuetan jarraitzen den protokoloari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, edozein obra pribatu edo publikotan giza hezurak agertzen diren kasuetan jarraitzen den protokoloari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, argibideak nahi baititu edozein obra pribatu edo publikotan giza hezurak agertzen diren kasuetan jarraitzen den protokoloari buruz (8-13/PES-00103). Hauxe erantzun dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak:

1.- Zer protokolo jarraitzen da edozein obra pribatu edo publikotan giza hezurak agertzen diren kasuetan?

Giza hezurak agertzen direnean, derrigorrezkoa da agintari judizialari horren berri ematea. Oro har, hezurak agertzen direnean, arloan eskumenak dituzten polizia kidegoei (Foruzaingoa, Guardia Zibila edo Polizia Nazionala) jakinarazten zaie. Horiexek arduratzen dira aurkikuntza jakinarazte-

az hezurak dauden tokiko barruti judizialari dagokion epaitegiari. Behin epaileak kasua ezagutzen duenean, auzitegiko sendagileak esku har dezan agintzen du. Azken horrek, Polizia Judizialeko eta Polizia Zientifikoko unitateekin batera, hezurak jasotzeari ekiten dio. Hezurak Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutura eramaten dira, bertan azter ditzaten. Behin han daudela, haiek aztertu eta txosten mediko eta legekoka egiten da, epaitegiak agindutakoari jarraituz. Eraitza zein den, epaitegiak erabakiko du ikerketak egiten jarraitzea ala gaia artxibatzea. Azterlanaren emaitzaren arabera, hezurak norenak diren jakitea lortzen bada –gauza zaila izaten da hori, oro har–, senideei eskuratzen zaizkie; bestela, aurkitu diren tokiko hilerriko hezurtegira eramaten dira; askotan, ordea, erosotasuna dela-eta, Iruñeko hilerriko hezurtegira eramaten dira.

2.- Ba al du zure departamentuak erregistraturik kasuren bat aurten?

Arestian adierazi dugun bezala, hezurak agertzen badira, kasuko epaitegiari jakinarazten zaio, ez departamentu honi.

3.- Modu egokian kudeatzen ez bada, zein zehapen daude aurreikusita?

Agintaritza judiziala da esku hartzen duena. Arlo honetan, ez dago zehapen prozedura administratiborik.

Iruñean, 2013ko irailaren 25ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi



## **Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietan ingresatutako Santiago Iricibar pazientea Burgosko Ospitalera eramateko egiazko arrazoiei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egingako galderaren erantzuna, Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietan ingresatutako Santiago Iricibar pazientea Burgosko Ospitalera eramateko egiazko arrazoiei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko irailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko zein izan diren abuztuko azkenurreko astean Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietan ingresatutako Santiago Iricibar pazientea Burgosko Ospitalera eramateko egiazko arrazoiak. Lekualdatze horren arrazoa frogatzen duten agirien bidez erantzuteko eskatzen du (PES-00109). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuo Osasun kontseilariak.

Larrialdi Zerbitzuaren jarduera aurreikusten ezinezkoa da eta arreta zuzenerako gakoetako bat da kasu bakoitzaren larritasunari buruzko balorazio klinikoa egitea, eskura dauden baliabideak, pertsonak zein baliabide teknikoak ahal den modurik egokienean erabiltzeko eta gaixo bakoitzak behar duen denboran. Gure ustez, baliabide horiek zuzen dimentsionatuta daude. Hala eta

guztiz ere, laguntza-bitarteko batzuk badaude aurreikusita aparteko inguruabarrak daudenerako, dela une jakin batzuetan zentro itunduetako ebakuntza-gelak erabiliz, dela Osasun Sistema Nazionalaren sareko erreferentziako zentroetako ebakuntza-gelak erabiliz. Horri dagokionez, abuztuaren 21eko arratsaldean, ohiko baliabideak zeuden larrialdietan. Alabaina, arratsalde hartan, inguruabar batzuk tarteko, itxaron denborak ohikoak baino luzeagoak izan ziren eta, horrenbestez, pazientea, azkenean, Burgosera eraman behar izan zen. Inguruabar horiek zerikusia izan zuten larrialdietan inongo geroratzerik onartzen ez zuten kasuak sartzearekin; izan ere, eskura zeuden ebakuntza-gela guztiak beteta zeuden. Kasu hartan, pazientea itxaroten egon zen denboran, haren arretaz arduratzen zen taldeak erabaki zuen itxarotea ebakuntzek zer eboluzio zuten ezagutu arte, zeren eta jo baitzen egokiena zela geure ebakuntza-gelen aukera guztiak agortzea pazientearen erreferentziako zentrori eraman dadin kudeatu baino lehen. Pazientearen interbentzioa protokoloaren arabera egokia zen denboran egiteko bermerik ez zegoela ikusi zen unean, erabaki zen erreferentziako zentro batera deribatzea. Kasu hartan, Burgosko Ospitalera eraman zen paziente.

Adierazi beharra dago uneoro zaindu egin zela gisa honetako lesioetan esku hartzeko protokoloan ezarritako denboren betetzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko irailaren 25ean

Osasun kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, euriteek Lekunberriko zabortege zaharrean izandako eragina arintzeko aurreikusitako ekintzei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, euriteek Lekunberriko zabortege zaharrean izandako eragina arintzeko aurreikusitako ekintzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Lekunberriko zabortege zaharra dela-eta Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen ekintzei buruz (8-13-/PES-00104). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak:

Iragan den neguan ohiz kanpoko plubiometria metatua izan dugu. Toki jakin batzuetan uholdeak izan dira; esate baterako, Iruñerrian eta Ebroko ardatzean. Baina gertaera zehatz eta denboran mugatu horietaz gainera, iparretik eta ipar-ekialdetik etorritako ondoz ondoko fronteek eurite eta elurte handiak ekarri dituzte, euri eta elur ugari utzita. Metatutako euri horren ondorioz, egonkortasun arazo asko gertatu dira lubetetan; izan ere, saturazioa dela medio, luiziak izan dira maiz.

Egoera horiek direla eta, luiziak gertatu dira Lekunberriko udal zabortege zaharraren lubetan. Zabortege hori gaur egun itxita dago, eta Plazaolako bide berdearen ondo-ondoan dago; zehazki, lubeta 1,5 km puntuan zeharkatzen duen erreka baten gaineko drainatze obra baino geroago, errekan behera.

Lekunberriko Udalak txosten-eskari bat igorri zigun jarduketa batzuk finantzatzeko eskatze aldera. Hari dagokionez, Ingurumen eta Ur Zuzendaritza Nagusiko unitate arduradunek jakinarazi zioten udalak aukera zuela biltzeko urtero Nafarroako ibaiak, errekek eta aintzirak mantentzeko eta lehengoratzeko obrak egiteko udal eta kontzejuentzako laguntzen deialdira.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiek

kalteturiko pertsonei laguntza eta babesa emateari buruzko urriaren 30eko 11/2009 Foru Legeko 2. eta 3. artikuluetan ezarritakoa aplikatuz, Lekunberriko udalerrria 2013ko lehenengo hiruhilekoan gure erki-degoan izandako euriteek eta elurteek kalteturiko udalen zerrendan sartu zen, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren ekainaren 13ko 198/2013 Foru Aginduaren bitartez –betiere, hari Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren uztailaren 5eko 249/2013 Foru Aginduaren bitartez emandako erredakzioaren arabera–; izan ere, foru agindu horien bitartez, zerga salbuespenak ezarri ziren foru erkidegoan 2012ko urriaren 19an, 20an, 21ean eta 25ean izandako euri-jasek eta uholdeek, 2013ko lehen hiruhilekoan izandako euri eta elur ekaitzek eta 2013ko ekainaren 8ko, 9ko eta 10eko uholdeek ukitutako pertsona fisiko eta juridikoentzat; halaber, salbuespen horiek aplikatzen dituzten udalei egin beharreko konpentsazioak ere ezarri ziren.

Aipatutako foru aginduetan jasotako laguntzak eta haiek izapidetzeko prozedura soilik udal tributuaren salbuespenei eta haiek egin dituzten udalentsako konpentsazioei dagozkie; toki azpiegituren konponketak edo lehengoratzeko ekarritako jarduerak, berriz, tokiko inbertsioei buruzko planaren kargura ordaintzen ari dira, larrialdiko edo presako lanaren tratamenduarekin. Alabaina, “zabortege zaharrean” pairatutako kalteak, zabortegea nahitaezko udal zerbitzu bat emateko instalazio bat ez denez, eskumen-esparru horretatik kanpo geratuko lirake eta, jada adierazi bezala, Nafarroako ibaiak, errekek eta aintzirak mantentzeko eta lehengoratzeko obrak egiteko udal eta kontzejuentzako laguntzen deialdiaren bitartez bideratu beharko lirake. Izan ere, deialdi hori urtero egiten du Ingurumen eta Ur Zuzendaritza Nagusiak; nolana ere, laguntza horiek emateko, aurrekontuan diru nahikoa egoteari begiratu beharko zaio, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko irailaren 25ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, euskaltegientzako diru-laguntzen deialdiari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak euskaltegientzako diru-laguntzen deialdiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du euskaltegientzako diru-laguntzen deialdiari buruz ((8-13/PES-00107). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernu

Hezkuntzako kontseilariak, dagokion organismoak egindako txostenean oinarriturik:

Gauza ondo jakina da nolako egoera ekonomikoa pairatzen ari garen. Egoera honetan, Gobernuaren ekintzan, ezinbestez, diru-sarrerak erregulartasunez eta maiz aztertu behar izaten dira, funtsak eskura egoteari buruz eta gastuak egiteari buruz erabaki arduratsuak hartze aldera. Gastuetan, noski, lehentasuna ematen zaie Administrazioaren funtzionamendurako eta oinarrizko zerbitzuak emateko ezinbestekoak direnei.

Testuinguru horretan, kontseilari honek ez dio uko egin Euskarabidearen aurrekontua osorik exekutatzeari eta, horrenbestez, deialdi hori aurrera ateratzeari.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen abenduaren 28ko 96/2003 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen abenduaren 28ko 96/2003 Foru Dekretua aldatzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Ingurumena Babesteko Esku Hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen abenduaren 28ko 96/2003 Foru Dekretua aldatzeari buruz (8-13-/PES-00111). Hona Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Ingurumena Babesteko Esku Hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen abenduaren 28ko 96/2003 Foru Dekretua aldatzeko prozedura has-teko unea aipatzen duzu idatziz erantzuteko galderan, bai eta haren edukiari buruzko gai jakin batzuk ere. Bada, horri dagokionez, jakitera ematen dizut Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak lanean jardun duela foru dekretu hori aldatzeko, Gobernuko gainerako departamentuekin (Lehendakaritza, Osasuna) eta gobernutik kanpoko eragile batzuekin batera (Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, nekazaritza ingeniariak, arkitektoak), sinpletze eta arintze administratiboko neurriak hartze aldera; izan ere, neurri horiei esker, jarduera eko-

nomikoen ingurumenean eta pertsonen osasunean eta segurtasunean eragin ditzaketen balizko ukipenen behar den prebentzioa eta kontrola kaltetu gabe, profesionalek beren lana garatu ahalko dute jardueren ezarpena mantsoaraz lezaketen ahal den eta traba burokratiko gutxienekin.

Gogorarazi beharra dago Nafarroako Parlamentuak abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legea onetsi zuela, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa, eta lege horrek agindu argia ezarri zuela aipatutako norabidean.

Gainera, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legeak izapidetze esparru jakin bat ezarri zuen, besteak beste gobernuak sustatzen dituen arau-xedapen berrietarako. Lege hori aplikatuz, Nafarroako Foru Komunitateko gobernu irekiaren atarian foru dekretuaren proposamena argitaratu da, bai eta hura justifikatzeko oroitidazkia ere.

Agiri horietan islatuta ageri dira galderan planteatutako gai batzuk, eta agerian gelditzen da dekretuak ez duela eraginik galderan aipatzen diren jardueretarako exijitzen diren baldintzetan, erantzukizuneko aitortpenak arestian aipatutako 15/2009 Foru Legean oinarritzen direla, eta, Europako araudia betetzeari dagokionez, gaur egun izapidetzen ari den foru dekretuaren proiektuak hura aurreikusten duela eta izapidetzearen behar den unean behar diren txosten juridiko guztiak gehituko direla.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskara ikasteko salbuespenari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskara ikasteko salbuespenari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskara sartzea eta erabiltzea arautzen dituen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuarekin lotutako zenbait gairi buruz, eta zehazki haren 5.2 artikuluari buruz non hauxe esaten baita: "Euskararen ezagutza egiaztatzeko betebeharretik salbuesita egonen dira eskualdean aldi baterako edo ezohiko bizitokia duten ikasleak, egoera hori justifikatzen badute eta salbuespen hori ezartzen den arauzko moduan eskatzen badute." (8-13/PES-00112). Hauxe da Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

1. galdera: Nolako justifikazioa eskatzen zaie ikasleei euskara ikastetik salbuesiak izateko? Alegia, zein prozedura erabiltzen da? Zein akreditazio edo ziurtagiri aurkeztu behar dute?

Euskararen irakaskuntzarako salbuespenen araubidea erregulatzeko arauak ematen dituen abenduaren 27ko 299/1988 Foru Dekretuko 1. Artikuluak honakoa ezarri zuen:

"Nafarroako eskualde ez-euskalduneko hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan, euskararen irakaskuntzatik salbuesita egon ahalko dira Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko ikasketak eskualde euskaldunetik kanpo hasi dituzten ikasleak edo hartan bizitoki ezohikoa edo aldi baterakoa behar bezala justifikatzen dutenak, salbuespen hori ondoren adierazitako moduan eskatzen baldin badute."

Aipatutako bi kasuei dagokienez –aldi baterako bizitokia izatea edo ikasketak eskualdetik kanpo hasi izatea–, eskari gehienak bigarrenari dagozkie. (Ikasketak euskaraz ikasi gabe egin izatea).

Ikasleek beren ikasketa-espeditatea aurkeztu behar dute, nahitaez. Hartan egiaztatzen da non ikasi zuen aurreko ikasturtean eta euskararen ikasgaia ikasi ote zuen. Salbuesita egon daitezke soilik aurrez euskara ikasgaia ikasi ez dutenak.

2. galdera: - Dekretuak ezartzen dituen baldintzak ez beteta ere, badago ikaslerik euskara ikastetik salbuesita dagoenik, Lekarozen bertan edo beste ikastetxeren batean? Hala bada, zenbat eta zein arrazoiengatik?

Inongo ikasle ezin da salbuesi ez baditu alde aurretik aipatutako baldintzak betetzen. Espedienteak aztertuta, egiaztatu dugu baimendutako salbuespen guztiek aipatutako arauak betetzen dituztela, hain zuzen ere 299/1988 Foru Dekretuko aipatutako artikuluan ezarritakoak. Halaber, gogorazi beharra dago ikastetxeak berak direla salbuespen-ekariak izapidetzen dituztenak eta eskatzaileen egoera ezagutzen dutenak.

3. galdera: 2012-2013 ikasturtean euskara ikastetik salbuesita izan nahi zuen ikasleren baten eskakizunik atzera bota al zen? Hala bada, jakin nahiko genuke zenbat eta zergatik.

2012-13 ikasturtean, 4 salbuespen-ekari eze-tsi ziren: bi Altsasuko San Miguel de Aralar Institutuan eta bi Lekarozko Institutuan. Kasu guztietan, ikasleek aurrez euskara ikasketak eginak zituzten eta arazoak zeuzkaten ikasgai horrekin. Lekarozko kasuan, bi ikasleek 3ko emaitza aterea zuten ekaineko deialdi arruntean eta 1ekoa iraileko aparteko deialdian. Hala eta guztiz ere, ikasleek, aurretik euskara ikasitakoak zirenez, ez zuten betetzen foru dekretuan ezarritako baldintza; hori dela eta, ezezkoa eman zitzaion salbuespena aplikatzeari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko irailaren 12an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

## **Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2013ko urriaren 4an onetsitako erabakiak.**

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2013ko urriaren 4an onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2013ko urriaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2013ko urriaren 4an onetsitako erabakiak**

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakariari eskatzen dio foru hauteskundeak deitu ditzan berehala.

**Bigarrena.** Nafarroako Parlamentuak, Nafarroak bizi duen egoera instituzional, ekonomiko, sozial eta demokratiko larria ikusita, Gobernuko lehendakariari eskatzen dio Parlamentua desegin dezan eta hauteskundeak deitu ditzan berehala.

**Hirugarrena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakariari eskatzen dio konfiantza eskaera aurkez dezan berehala eta, halakorik egin ezean, Parlamentua desegin eta hauteskundeak deitu ditzan.

**Laugarrena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoarekiko bere konpromisoa adierazten du, Foru Komunitatearen autogobernuaren, gure berezitasunaren eta Espainiako Konstituzioak babestutako eskubide historikoen funtsezko osagaia den aldetik.

Halaber, Nafarroaren eta Estatuaren arteko harreman-tresna gisa ulertu behar da Hitzarmena, ekitatean, gardentasunean eta gure herriak gainontzeko erkidegoekiko duen lankidetzaren solidoan oinarritua.

**Bosgarrena.** Nafarroako Parlamentuak adierazten du indarkeria terroristaren biktimenganako bere konpromiso irmoa, haien familienganako zalantzarik gabeko elkartasuna eta ETA erakunde terroristarentzako erabateko exijentzia, egindako kaltea zuzendu dezan eta biktimei barkamena eska diezaien. Exijentzia hori erakusten dugu zeharo gaitzetsiz eta arbuia gure lurraldean historian zehar terrorismoa goraipatzearen gertatu diren ekintza guztiak, azken asteotan, zoritxarrez, Nafarroako zenbait herritan ikusi direnak, eta exijentzia hori, azkenik, oraindik ere ETArekin ekintza kriminalak eta hilketak gaitzesten ez dituzten indar politikoentzat ere bada; izan ere, horien adorea ezaren, ausardia politiko ezaren eta etika sozial nahiz instituzional ezaren ondorioz, isiltasun konplize batean murgilduta jarraitzen dute, ETAK eragindako sufrimenduak eta terrorismoak luza-ztea eraginez behin eta berriro.

**Seigarrena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du Nafarroaren garapena bultzatzeko neurriak har ditzan ondoko esparruetan:

**ERREFORMA FISKALA.** Inbertsioa erakar-tza bideratua, bai eta enpresa berriak ezartzea eta enplegua sortzea erraztera bideratua ere.

**TRIBUTU ARLOKO NEURRIAK.** Nafarroaren autogobernu ahalmenean oinarritutako, erkidegoko zergadunei aukera emanen dietenak, zenbait kasutan behintzat, beste erkidego batzuetan baino presio fiskal txikiagoa edukitzeko, Hitzarmen Ekonomikoan uneoro errespetatuz araubide komuneko erkidegoekiko baliokidetasun-printzipioa.

**PLANGINTZA INDUSTRIALA.** Nafarroako enpresa txiki eta ertainen, mikroenpresen eta autonomoen industria-sarea babestea bideratua, gure ekonomia funtsezko sektoreak diren aldetik. Nafarroan gero eta enpresa gehiago ixtea moteltzera bideratutako jarduketaren zehatzeko neurriak, laguntza zuzena emanez zailtasunak bizi dituzten enpresei.

**NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA.** Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ematen dituen zerbitzuak egungo egoera eta eskariaren arabera gaurkotzea, Kontuen Ganberak egindako gomen-dio guztiak garatuz, hartara langile nafarren enplegarritasuna hobetuko baita.

**AIREPORTUA.** Estatuaren eta Nafarroaren arteko aireportu-koordinazioko batzordearen sorrera babestea, administrazio eskudunek neurriak hartzea erraztu dezaten, bidaiari gehiago erakarri ahal izateko eta Iruña-Noain aireportua errentagarri izatea lortzeko.

**LEHEN SEKTOREA.** Lehen sektoreari laguntzeko neurri berriak, gure erkidegoko osagai estrategikoa den aldetik, krisi egoeran hobeki portatu, egokitu eta erantzuten jakitea frogatu baitu. Zehazki, nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuak merkaturatu eta esportatzeko neurriak aztertuko dira.

**MODERNA PLANA.** Nazioarteko krisiaren ondorioz sortu den agertoki sozioekonomiko berri-  
ra egokitzea Moderna Plana.

**Zazpigarrena.** Nafarroako Parlamentua egungo 50 eserleku-kopurua murriztearen alde dago; hain zuzen ere, alderdi politikoei adosten duten kopurura, zeinak Foruaren Hobekuntzan ezarritakoa bete beharko baitu betiere.

**Zortzigarrena.** Nafarroako Parlamentua osasun-sistema publiko iraunkor eta kalitatezko bat mantentzeko behar diren neurriak eta inbertsioak egitearen alde dago, Espainian erreferentzia izaten jarraituko duena.

Orobat babesten du 2014ko aurrekontuetan lehenatasuna eman dakion kolektibo ahulenentzako gizarte politikak mantentzeko.

Hezkuntza publiko eta itundu bat aldeztu du, gurasoek beren seme-alabentzako egokien jotzen duten hezkuntza-mota aukeratzeko eskubidea ziurtatuko duena.

**Bederatzigarrena.** Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernuaren deriba autoritarioa errefusatzea eta arbuiatzea, eta Gobernuko lehendakariari exijitzen dio Parlamentua desegin dezan eta hauteskundeak deitu ditzan berehala.

**Hamargarrena.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakariari eskatzen dio foru hauteskundeak deitu ditzan berehala.

**Hamaikagarrena.** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari prestatzen du abian jarritzan bide guztiak, ordezkaritza handiena duten

eragile ekonomiko eta sozialekin hain beharrezkoa den elkarrizketan sakontzeko, krisitik hobeki irteteko bidea baita.

**Hamabigarrena.** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari prestatzen du "gazte enplegu funtsen zatirik handiena zuzenean bidera dadin autonomia erkidegoentzat, horiek direlako enplegu politika aktiboak betearazteko ardura dutenak, eta banaketa hori azkar egin dadin, gure erkidegoko gazte-bermeko programa behar bezala planifikatu ahal izateko".

**Hamahirugarrena.** 1.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroak Espainiako gainerako autonomia erkidegoekiko erabateko elkartasuna erakusten duela, Foru Araubidetik eta bere Hitzarmen Ekonomikotik heldutako tresnen bitartez.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuarekiko eta berezitasunarekiko konpromisoa adierazten du, bai eta Foru Komunitatearen eskubide historikoekiko konpromisoa ere, zeinak Espainiako Konstituzioan jasota baitaude, eta, halaber, gure erkidegoaren errealitate instituzionalarekiko errespetua exijitzen du.

**Hamalauugarrena.** 1.- Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten die terrorismoaren biktimei, haiek direlako gizartearen onaren erreferentzia bat, askatasunaren eta justiziaren aldeko borrokaren eredu eta sinbolo iraunkorra.

2.- Halaber, Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten du terrorismoa goraipatzeko ekitaldi oro, bai eta terrorismoaren biktimen eta haien familien duintasuna eta memoria bortxatzen duen edozein ekintza ere.

**Hambosgarrena.** 1.- Nafarroako Parlamentuak kezka egiaztatzen du Espainiako Gobernuari, oinarritzko araudia onesteko duen eskumenaren babesean, Nafarroako Parlamentuaren legeen aurka Konstituzio Auzitegian jartzen ari den errekurtso-kopuru handia.

2.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari prestatzen du indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarritako tresna guzti-guztiak erabil ditzan, bereziki Lankidetzako Batzordea, akordioak eta adostasunak bilatzeko, halako moduan non, gure araubide juridiko-konstituzionalaren berezitasunei begi emanez, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak babestuko baitira, zorrotz errespetatuta Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa, zeinak Nafarroako Foru Araubidea babestu eta errespetatzen baitu.

